

Ikastolako eraikinetan energia berriztagarrien inplementazioa eta azpiegituretako ereduak energia- eraginkortasuna lortzeko



2022-2023 ikasturtea

HHko eraikina

6.1 2022-2023 ikasturtean, **HHko eraikinean euri-ura jasotzeko depositoak eta bonbak instalatu dira komunetan euri-ura erabiltzeko.**



HHko eraikina

7.1 2021eko udan, HHko eraikinean lanak egin genituen **isolamendua hobetzeko, domotizazioa ezartzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko, gasolioa aerotermiarekin ordezkatzuz, 8 generadoreren bitartez berogailua eta zoru-erradiatzaileko energia lortuz.**

17.18 **Ikastolan ezarri ditugun teknologien garapena eta dibulgazioan Energiaren Euskal Erakundearekin parte hartzen dugu.**



LHko eraikina

7.5 2023ko apirilean, LHko eraikinean isolamendu lanak egiten hasi gara, eta 2023ko udan, aerotermia instalatuko dugu gasolioa ordezkatzeko, 11 generadore instalatuz.



LHko eraikina

7.6 2022-2023 ikasturtean, Ikastola osoan panel fotoboltaikoak instalatzeko diru-laguntza eskatu dugu, onarpenaren zain gaude. **Gure helburua Ikastolan kontsumitzen dugun energia, energia berriztagarrien bitartez lortzea da.**



DBHko eraikina

6.1 2018-2019 ikasturtean, **DBHko eraikinean euri-ura jasotzeko depositoak eta bonbak instalatu genituen komunetan euri-ura erabiltzeko.**



6 EDATEKO URA
ETA SANEAMENDUA



4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



7 ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK



8 LAN DUINA
ETA HAZKUNDE
EKONOMIKOA



9 INDUSTRIA,
BERRIKUNTZA ETA
AZPIEGITURA



11 HIRI ETA
KOMUNITATE
JASANGARRIAK



13 KLIMA BABESTEKO
EKINTZA




DBHko eraikina

6.5 2018-2019 ikasturtetik aurrera, **DBHn urik gabeko komunak erabiltzen ditugu mutilen komunetan.**



DBHko eraikina

7.2 Ikastolako eraikinetan domotizazio planarekin jarraitzen dugu: argien, berogailuen eta bestelakoen energia-eraginkortasuna lortzeko.



Beheko Soloa eraikina

7.3 2007-2008 ikasturtetik aurrera, **Beheko Soloa eraikineko eguzki-panelen bitartez igerilekuetako ura berotzeko energia lortzen dugu.**



7 ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK



4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



8 LAN DUINA
ETA HAZKUNDE
EKONOMIKOA



9 INDUSTRIA,
BERRIKUNTZA ETA
AZPIEGITURA



11 HIRI ETA
KOMUNITATE
JASANGARRIAK



17 ITUNAK
HELBURUAK
LORTZEKO





13 KLIMA BABESTEO
EKINTZA



Beheko Soloa eraikina

7.2 Ikastolako eraikinen domotizazioaren kontrol informatikoa erabiltzen dugu argiaren, tenperaturaren edo uraren kontsumoaren energia-eraginkortasuna lortzeko. Datuen kontrola eginez, ezbeharren aurrean berehalako neurriak hartzen ditugu. COVID garaian, CO2aren neurketen ondorioz ikasi genuen datu guztiak kontrolatzearen garrantzia.



Azaldutako ekimenak Lauro 2030 Agenda-planan

Ekimen guztiak Lauro 2030 Agenda-planan txertatuta ditugu, ekimen bakoitza dagokion Garapen Jasangarrirako Helburuarekin eta garatzen ditugun helmugekin lerrokatuta.

Ekimen guztien berri [lauro2030agenda](https://lauro2030agenda.eus) webgunearen eta gure plataformen bitartez mundura zabaltzen dugu.

